# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 3166

137/1996 DEKRETUA, ekainaren 11koa, Euskadiko egoera soziopolitikoari buruzko «Euskal Gizartearen Egoera» izeneko ikerketa–saria sortzeko eta arautzeko dena.

Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen ekainaren 20ko 305/1995 Dekretuaren 8, 1, c) atalean xedatzen denez, Analisi eta Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiaren egitekoetako bat hau da: «Jaurlaritzak parte hartzen duen alorretako gizarte egoera eta bilakaerari buruzko azterlan, txosten edo ekintzak prestatu, Jaurlaritzaren Lehendakaritzak horien berri izan dezan». Halaber, Dekretuko 10, f) atalean, Analisi eta Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiaren Argibide eta Azterlan Zuzendaritzari betebehar hau izendatzen dio: «Gizarteak bizi duen egoeraren bilakaeraren berri unean-unean izatea Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen bidez».

Helburu horiek betetzeko, oso interesgarria da garai honetako euskal gizartea ezagutzen lagundu dezaketen ikerketa eta azterlanak bultzatzea, eta alde horretatik, akuilu gisa, arlo horretako lanak sustatuko dituen sari bat, «Euskal Gizartearen Egoera» izenekoa guztiz baliagarria izan daiteke.

Ondorioz, Lehendakaritzaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko ekainaren 11n eginako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Helburua eta deialdia.

Euskadiko egoera soziopolitikoari buruzko «Euskal Gizartearen Egoera» izeneko ikerketa–saria sortzea; dekretu honetan adierazitako gorabeherak jasotzen dituen lan bati egokituko zaio.

Saria halako diru kopurua ematea izango da, eta urtero egingo du Lehendakaritzako idazkariak horretarako deialdia; bertan hainbat argibide —helburua, diru kopurua, akzesitak, lanak aurkezteko tokia eta epea, emakida, ordainketa eta sarikurra entregatzea— zehaztuko dira.

*2. atala.–* Lanek bete beharreko baldintzak.

1.– Sari honetara aurkezten diren lanek Euskal Autonomi Elkartea hartuko dute ardaztzat —nahiz eta beste eremuetako erreferentziak ere erabiltzea zilegi den — eta ondoren aipatzen diren gaien ingurukoa izan behar dute:

– baloreak eta bizimoldeak,
– indarkeria eta bakegintza,
– gazteria eta politika,

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 3166

DECRETO 137/1996, de 11 de junio, por el que se crea y regula el Premio «Realidad Social Vasca» de investigación sobre la realidad sociopolítica de Euskadi.

El Decreto 305/1995, de 20 de junio, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno – Lehendakaritza, en su artículo 8, 1, c), define como una de las funciones de la Secretaría General de Análisis y Comunicación, adscrita a Lehendakaritza, la de «realizar cuantos estudios, informes y acciones sean precisos para mantener informada a la Presidencia del Gobierno de la situación y evolución de la realidad social en las áreas de actuación gubernamental». Asimismo, el artículo 10, f), del mencionado Decreto, asigna a la Dirección de Información y Estudios de la Secretaría General de Análisis y Comunicación el «mantener una información actualizada de la situación y evolución de la realidad social, a través del Gabinete de Prospección Sociológica».

Para cumplir los fines expuestos se considera de interés impulsar y promover la realización de investigaciones y estudios que ayuden a mejorar la comprensión sobre la realidad social vasca contemporánea, a lo cual puede contribuir la creación de un premio que, bajo la denominación de «Realidad Social Vasca», reconozca destacados trabajos en el área señalada.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su Sesión celebrada el día 11 de junio de 1996,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto y convocatoria.

Se crea el Premio «Realidad Social Vasca» de investigación sobre la realidad sociopolítica de Euskadi, que recaerá en un trabajo en el que concurran las circunstancias establecidas en el presente Decreto.

Dicho Premio, consistente en una dotación económica, será convocado anualmente por Resolución del Secretario de la Presidencia, en la que constará en todo caso el objeto de la misma, dotación y posibilidad de accésits, lugar y plazo de presentación de candidaturas, así como concesión, pago y entrega del galardón.

*Artículo 2.–* Requisitos de los trabajos.

1.– Los estudios o investigaciones que concurran al presente Premio habrán de versar sobre alguno de los siguientes temas, enmarcados en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco aunque abiertos a la comparación con otros ámbitos:

– valores y estilos de vida,
– violencia y pacificación,
– juventud y política,

– Euskadiko kanpo irudia,
– euskal erakundeen irudia,
– ideologia politikoak,
– hauteskundeetako emaitzak: botoa eta abstentzioa,

– ikerketa soziopolitikorako metodologiak eta Euskadiko egoera soziopolitikoa ezagutzen lagundu dezaketen beste guztiena.

2.– Metodologia dela eta, ikerketa kuantitatiboa zein kualitatiboa izan daiteke.

3.– Aurkezten diren lanek argitaragabeak izan behar dute, eta deialdiaren aurreko bi urteetan egindakoak. Defendatutako doktoretza-tesiak ere aurkeztu ahal izango dira, baldin eta argitaratugabeak badira.

4.– Sari hau bateraezina da ikerketa-lana egiteko jaso daitezkeen bestelako sari, beka edo laguntzekin.

*3. atala.–* Egileek bete beharreko baldintzak.

1.– Lanak aurkezteko epea amaitzen den momentuan, goi-mailako titulazioa izatea, edota unibertsitatekarrerako azken bi urteetan aritzea.

2.– Pertsona fisiko horiek beren kasa edota beste batzuekin elkartuta aurkez daitezke; kasu honetan, taldeko partaide guztiek bete beharko dituzte deialdiko baldintzak, eta ikerketa-buru bat aukeratuko dute.

Inola ere ez da onartuko pertsona fisikoak pertsona juridikoen izenean edo ordez aurkezterik (institutuak, unibertsitateak, erakundeak, enpresak, elkarteak, e.a.).

3.– Debekatuta dute sari honetara aurkeztea Euskal Administrazio Publikoetako langileek (Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak, Foru Administrazioa eta Tokikoa) eta Estatuko beste Lurralde Administrazio batzuetakoek, baldin eta ikerketa-lana beren lanarekin batera burutu badute, edo ikerketa-lana beren lanbidearekin elkarlotuta dagoenean.

Edozein zentrotako (publiko nahiz pribatua) unibertsitate–irakasle guztiek, berriz, parte hartu ahal izango dute.

*4. atala.–* Lanak aurkeztea.

1.– Ikerketa-lanarekin batera txosten zehatz bat aurkeztu beharko da, helburuak, gaiaren justifikazioa, metodologia, ikerketak hartutako denbora-tartea eta, hala badagokio, ekarpen berriak azalduz. Txosten horrek bost eta hamar folio bitarteko luzera izango du, alde batetik eta tarte bikoitzarekin idatzita, eta, ikerketa-lana bezala, lau kopiatan entregatuko da, ezizen baten sinadurarekin.

2.– Halaber, gutunazal baten barnean, norberaren datuak (izen–abizenak, NAN, helbidea eta telefonoa)

– imagen exterior de Euskadi,
– imagen de las Instituciones Vascas,
– ideologías políticas,
– comportamiento electoral pasado y futuro: voto y abstención,

– desarrollo de metodologías para la investigación sociopolítica, y cuantas otras contribuyan a conocer la realidad sociopolítica de Euskadi.

2.– En cuanto a su metodología, la investigación podrá ser tanto de carácter cuantitativo como cualitativo.

3.– Los trabajos presentados, que deberán ser inéditos, estarán realizados en los dos últimos años precedentes a la fecha de la correspondiente convocatoria. Podrán presentarse tesis doctorales ya defendidas siempre que no estén publicadas.

4.– El presente Premio resulta incompatible con otros premios, becas, subvenciones o ayudas recibidas para la realización del trabajo de investigación.

*Artículo 3.–* Requisitos de los candidatos.

1.– Podrán presentar sus trabajos personas físicas que tengan la condición de Titulados Superiores o estén realizando los dos últimos cursos de la carrera universitaria en el momento en que finalice el plazo de presentación de candidaturas.

2.– Dichas personas físicas podrán tomar parte a título individual o asociadas con otras. En este último caso, todos los integrantes del equipo habrán de cumplir los requisitos de la convocatoria, señalándose un responsable de la dirección de la investigación.

En ningún caso podrán presentarse personas físicas en nombre o representación de personas jurídicas (institutos, universidades, organizaciones, empresas, sociedades u otras).

3.– Queda excluido de concurrir al presente Premio el personal al servicio de las Administraciones Públicas Vascas (Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, Administración Foral y Local), y de otras Administraciones Territoriales del Estado, cuando el trabajo de investigación haya sido realizado en el ejercicio de sus funciones, o el contenido del mismo guarde relación con los cometidos que desempeña.

Sí podrá optar al Premio el personal docente universitario que imparte clases en cualquier centro público o privado.

*Artículo 4.–* Presentación de candidaturas.

1.– Junto al trabajo de investigación concurrente al Premio, habrá de presentarse obligatoriamente una Memoria detallada con los objetivos, justificación del tema, metodología, período temporal abarcado por el estudio y fechas de realización del mismo y aportaciones novedosas, en su caso. Esta memoria, con una extensión de entre cinco y diez folios escritos a doble espacio y por una cara, se entregará, al igual que el trabajo de investigación, por cuadruplicado y de forma anónima o con pseudónimo.

2.– Asimismo se acompañará una plica, o sobre cerrado, en cuyo interior se consignarán los datos perso-

eta egilearen/en curriculum vitae aurkeztu behar dira.

3.– Agiriak aurkezteko tokia eta epea urteroko deialdi–erabakiak ezarriko ditu.

*5. atala.*– Epaimahaia.

1.– Sariaren esleipena proposatzeko eta, behar izanez gero akzesitak ere bai, epaimahai bat osatuko da honako kideekin:

– Lehendakaria: Jaurlaritzaren Lehendakaritzako idazkaria edo bere ordezkoa.

– Bokalak:

– Argibide eta Azterlan Zuzendaritzako titularra, edo bere ordezkoa.

– Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteko arduradun teknikoa.

– Sariak hartzen duen gaian adituak diren unibertsitateko hiru irakasle, Lehendakaritzako idazkariak izendatuak.

– Idazkaria (hitza bai baina botorik ez): Prospekzio Soziologikoen Kabineteko teknikari bat.

Epaimahaiaren osaera Lehendakaritzako idazkariaren erabakiz jakinaraziko da eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Sariaren esleipenaren berri ematen duen erabakia baino hilabete lehenago.

2.– Epaimahaiaren edozein akordio ontzat emateko beharrezkoa izango da kideen gehiengoaren aldeko botoa izatea; berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoak erabakiko du. Dekretu honetatik kanpo gelditzen den guztiaren gainean Herri–Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak organo kolegiatuentzat araututakoa aplikatuko da.

*6. atala.*– Esleipena

1.– Sariaren esleipena proposatzeko eta, behar izanez gero akzesitak ere bai, epaimahaiak kontutan hartuko ditu lanen kalitatea, zuzentasun tekniko-zientifikoa, planteamenduaren eta metodologiaren orijinaltasuna edota berrikuntzarik ekarri ote duten bakoitzari dagokion ikerketa-alorrean.

2.– Epaimahaiaren esleipena proposatzen duen akta Jaurlaritzako Lehendakaritzako idazkariari bidaliko zaio, eta honek sariduna izendatuko du erabaki bidez. Erabaki horrek administrazio bidea amaituko du eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Lan bat aurkezten denetik hiru hilabetera, bere gainean erabaki adierazirik eman ez bada, gaitzetsitzat joko da.

3.– Saria eman gabe gera daiteke, bai osorik bai zati batean.

4.– Sariaren esleipena zuzenean jakinaraziko zaie irabazleei. Ondoren dirusaria emango zaie eta, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzako Idazkaritzak hala erabakiz gero, ekitaldi publiko batean sarikurra emango zaie.

nales (nombre y apellidos, DNI, dirección y teléfono) y curriculum vitae del autor/es.

3.– La citada documentación se presentará en el lugar y plazo que fije la correspondiente Resolución de convocatoria anual.

*Artículo 5.*– Jurado.

1.– Con objeto de proponer la adjudicación del Premio, y en su caso de los accésits al mismo, se constituirá un Jurado que estará formado por los siguientes miembros:

– Presidente: Ilmo. Sr. Secretario de la Presidencia del Gobierno, o persona en quien delegue.

– Vocales:

– Titular de la Dirección de Información y Estudios, o persona en quien delegue.

– Responsable Técnico del Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno – Lehendakaritza.

– Tres profesores universitarios cualificados en la materia objeto del Premio, que serán nombrados por el Ilmo Sr. Secretario de la Presidencia.

– Secretario, con voz y sin voto: un técnico del Gabinete de Prospección Sociológica.

La composición del Jurado se hará pública por Resolución del Secretario de la Presidencia que se insertará en el Boletín Oficial del País Vasco con un mes de antelación a la publicación de la Resolución de concesión del Premio.

2.– Cualquier acuerdo que adopte el Jurado requerirá, al menos, el voto favorable de la mayoría absoluta de sus miembros, decidiendo el empate el voto de calidad del Presidente. En lo no dispuesto en la presente norma se estará a lo regulado para los órganos colegiados en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 6.*– Adjudicación

1.– El Jurado propondrá la adjudicación del Premio, y de sus accésits, en su caso, a aquellos trabajos que presenten una mayor calidad y rigor técnico-científico, destaquen por la originalidad de su planteamiento y por la novedad de la metodología empleada o supongan una innovación en el campo de investigación de su área respectiva.

2.– El Acta que recoja la propuesta del Jurado será elevada al Secretario de la Presidencia del Gobierno, que asignará el Premio mediante Resolución. Esta Resolución, que agotará la vía administrativa, será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco. Se entenderán desestimadas las candidaturas respecto de las cuales no recaiga resolución expresa en el plazo de tres meses desde su presentación.

3.– El Premio podrá declararse desierto, ya sea total o parcialmente.

4.– La adjudicación del Premio será notificada personalmente a los ganadores, procediéndose posteriormente al pago de su dotación y a la entrega en acto público del galardón, si así lo dispusiera la Secretaría de la Presidencia del Gobierno Vasco.

*7. atala.–* Eskubideak ikerketa-lanen gainean.

Saritzen diren ikerketa-lanen gaineko eskubideak, lanak ustiatzekoak alegia, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioara pasako dira, doan eta esklusiboki, Jabego Intelektualari buruzko azaroaren 11ko 22/1987 Legean eta Legea garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera. Hori egiaztatzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, prest egon beharko dute egileek behar den agiria izenpetzeko.

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak beretzako gordetzen du lanak —banaka zein denak batera— argitaratzeko eskubidea; hala egiten badu, sariaren aipamena agertu beharko du.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

«Euskal Gizartearen Egoera» sarirako lanak aurkezteak, berez, bertako oinarriak osorik onartzeko hitzarmen berariazkoa dakar, dekretu honetan eta urteroko deialdi-erabakian ezarritakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko ekainaren 11n.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

*Artículo 7.–* Derechos sobre los estudios.

Los derechos de explotación correspondientes a los trabajos de investigación premiados se cederán con exclusividad y a título gratuito a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en los términos recogidos en la Ley 22/1987, de 11 de noviembre, de Propiedad Intelectual y normas de desarrollo, obligándose los autores a otorgar el oportuno documento cuando sea necesario para la debida constancia pública de la cesión de los derechos de propiedad intelectual.

La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco se reserva el derecho de publicar los trabajos, bien de forma individual o conjunta, en cuyo caso se hará constar el premio concedido.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La presentación al Premio «Realidad Social Vasca» supone la aceptación expresa e íntegra de las bases del mismo según lo dispuesto en el presente Decreto y en la Resolución anual de convocatoria.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de junio de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

## OGASUN ETA HERRI ADMNISTRAZIO SAILA HERRIZAINGO SAILA

### 3167

138/1996 DEKRETUA, ekainaren 11koa, Euskal Autonomi Elkartearen 1996. urteko aurrekontuan, Ertzaintzaren alorrean, kredituak aldatzeari buruzkoa.

Euskal Autonomi Elkartearen 1996ko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 29ko 6/1995 Legearen 11. ataleko 1 eta 2 idazatietan ezartzen denez, Ertzaintzaren alorrean Euskal Autonomi Elkarteak bereganatuta dituen eskumenak finantzatzeko diren kredituak aldagarritzat jo daitezke, bai prestakuntzaaldian dagoen Ertzaintzari zein Zerbitzuan dagoen Ertzaintzari dagokienez. Kreditu horiek inkorporatu edo handitu egin daitezke, ezabatu edo gutxitu, Ertzaintza finantzatzeari buruz Kupoaren Bitariko Batzordeak hartutako akordioetan ezarritakoaren arabera.

Euskal Autonomi Elkartearen 1996ko aurrekontu

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y DEPARTAMENTO DE INTERIOR

### 3167

DECRETO 138/1996, de 11 de junio, sobre variación de créditos en el Presupuesto de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1996 en materia de Policía Autónoma.

Los apartados 1 y 2 del artículo 11 de la Ley 6/1995, de 29 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio de 1996 establecen que tendrán carácter de créditos variables los destinados a financiar competencias de la Comunidad Autónoma en materia de Ertzaintza, tanto se refieran a Ertzaintza en Formación como a Ertzaintza en Servicio, pudiendo ser incorporados o ampliados y anulados o reducidos en función de lo establecido en los acuerdos de la Comisión Mixta de Cupo sobre financiación de la Policía Autónoma.

El artículo 22, apartado 2.d) párrafo cuarto de la Ley